

TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIT) 2003ko bigarren hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak %4,4 hazi ziren 2003ko bigarren hiruhilekoan

Araban %5,5 hazi ziren, batez bestekoaren gaintetik, eta Bizkaian (%4,2) eta Gipuzkoan (%4,3), ostera, neurritsuago.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2003ko bigarren hiruhilekoan, salmentak %4,4 igo dira, kopuru nominaletan, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, Eustatek emandako datuen arabera. Hazkunde nominal hori, kopuru errealetan, %2,1eko garapen positiboa da.

URTE ARTEKO HAZKUNDE TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2001	II	1,8	2,1	1,1
	III	-0,5	0,2	-1,8
	IV	-1,9	-2,7	0,0
2002	I	3,3	5,4	-0,3
	II	3,2	3,9	1,9
	III	9,6	12,0	4,7
2003	IV	6,5	8,4	3,3
	I	3,9	4,3	3,0
	II	2,1	2,0	2,4

Iturria: EUSTAT

Tradiziozko txikizkako merkataritzaren (espezializatua) salmenta nominalak %3,6 igo dira 2003ko bigarren hiruhilekoan, 2002ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Igoera nominal hori, prezioen igoeraren eragina kenduta, %2,0koa da, balio errealetan.

Gune ertain eta handietako txikizkako salmentak (ez-espezializatua) %5,8 hazi dira balio nominaletan, aurtengo bigarren hiruhilekoan. Prezioen igoeraren eragina kendu eta gero, urte arteko tasaren aldakuntza %2,4koa da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Herrialde Historikoka banatuz gero, bigarren hiruhileko honetan, Araban izan da txikizkako merkataritzako salmenta nominalen hazkunderik handiena; %5,5eko urte arteko hazkundera izan baita, txikizkako merkataritza ez espezializatuaren hazkunde handiak eraginda (%6,1). Atzetik Gipuzkoa du, indize orokorreko %4,3ko aldakuntza positiboarekin eta Bizkaia, %4,2koa hazkundera izan du. Balio errealetan, honako hazkundeak izan dira: %3,1ekoa Araban, eta %2,1ekoa Gipuzkoan, eta %1,9koa Bizkaian.

2003ko bigarren hiruhilekoan txikizkako merkataritzaren sektorean ziren landunen aldetik, urte arteko %1,4ko hazkundera izan zen (aurreko urteko hiruhileko beraren aldean) Euskal AEko guztizkorako. Herrialdeka, honakoak dira datuak: Araban %1,8 hazi zen eta Gipuzkoan eta Bizkaian, %1,3.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Tlf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es
Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta
Tlf:+34-945-01 75 05 Faxe+34-945-01 75 01
Prentsa oharrak Interneten: www.eustat.es